

Funtsezko baliabideak

Proiektua aurrera eramateko, zenbait baliabide funtsezkoak izango dira. Lehenik eta behin, plastiko gogorrez egindako taper bat lortu beharko dugu. Taper honek, bere ertzetan, disoluzio bat sartzeko espazio berezi bat izango du. Hodi horren fabrikazioa ahalbidetuko duen funtsezko elkarrekin bilatzea da hurrengo pausua, eta hori egiteko prest dagoen hornitzaile bat aurkitu behar dugu, horretarako Taper pertsonalizatuak egiten dituzten hainbat enpresa daude: *Densoblast*, *Plastigaur*, *Poligal*... bakoitzak eskaintzen dituen posibilitateak eta prezioak begiratu eta bat aukeratu beharko genuke.

Gero, sodio azetato disoluzio gainsaturatua lortzeko, sodio azetatozko hautsa duten sobre txikiak erosi beharko ditugu. Disoluzio hau taper barruan prestatu behar da, eta horretarako, azetatozko sodio hautsa hodian sartu ondoren, urez bete behar da. Lortzen den disoluzioa beharrezkoa da taperra berotzeko, disoluzioa orekatik ateratzen denean, sodio-azetatoak kristalizatu egiten du, eta beroa askatzen duelako prozesu exotermikoa baita. Sobreak, taperrekin batera edo bakarka saltzen direnak, ezinbestekoak izango dira disoluzio gainsaturatua prestatzeko.

Proiektuaren funtzionamendu egokia bermatzeko, lehenik eta behin baliabide guztiak egoki eskatu eta lortu behar ditugu, beharrezkoa den informazioa eta proiektua prestatzeko lekua ere. Hau da, leku lasaia eta beharrezko tresna guztiak gordetzeko modukoa.